



# Itzalek ez dituzte aurreikuspenak okertzen

Egun hauetan asko hitz egiten da inflazioaz, elektrizitatearen igoeraz, gasaren prezioaz, erdieroaleen gabeziagatik sortu diren botila lepoez eta abarrez. Horiek guztiak arazo garrantzitsuak dira eta nolabaiteko tentsio mediatikoa sortzen ari dira. Hala eta guztiz ere, oraingoz horrek ez du eraginik izan aurreikuspenetan. Izan ere, **eurogunearen sentimendu ekonomikoak hobera egin zuen irailean, abuztuko datuekin alderatuta**. Egia da uztailleko datutik aldendu dela, historiako daturik handiena izan baitzen, baina oraindik baikor dago. Emaita hori, neurri handi batean, industriak bizi duen une onari zor zaio, bere balio maximotik oso gertu mantentzen baita. Kontsumitzaileen konfiantzak ere hobera egin du abuztuarekin alderatuta. Sentimenduaren hobekuntza Alemanian eta Espainian nabari da; Frantzia eta Italian, berriz, apur bat okertu da sentimendua.

Euskadin, Laboral Kutxaren txostenaren arabera, **EAEko familien konfiantzak hobera egin du aurtengo hirugarren hiruhilekoan**, eta, beraz, aurreko hiruhilekoan eskuratutako datu positiboa sendotu egin da. Beraz, pandemiaren garaian (baita 2019ko zatirik handienean ere) bizi izandako ezkortasuna atzean geratzen ari da. Familien erantzun positiboek ekonomia orokorrari eta langabeziari buruzkoak izan dira. Aitzitik, familiak ez dira hain baikorrak beren ekonomiaz hitz egiteko orduan. Hala ere, EAEko familien konfiantza Europako familia baina handiagoa da orain, nahiz eta igurikimenak hobetzeko joera komuna den.

Konfiantzaren hobekuntza hori datu ekonomiko onetan oinarritzen da, eta horri esker, **EAEko ekonomiaren aurtengo hazkunde aurreikuspena %6,7an mantentzea eta datorren urtekoa %6,4ra igotzea ahalbidetu da**. Aurreikuspenen eguneratzeak adierazten du barne eskaria indartsuagoa izango dela eta, alderantziz, kanpoko saldoak ekarpen negatibo handiagoa egingo duela. Enpleguari dagokionez, lanaldi osoko lanpostu baliokideak %5,1 haziko direla aurrean, eta %3,3, berriz, datorren urtean aurreikusten da. Horri esker, langabezia tasa %10,3ra jaitsiko da 2021eko batez bestekoan, eta %9,5era 2022an.

Aurreikuspen ekonomikoak berrikustea ohikoa da nazioarteko erakundeen artean. Hilabete honetan jakin da ELGEk zer aurreikuspen egin duen eremu ekonomiko nagusietarako eta munduko ekonomiarako. Eszenategi berrian, ia ez dago aldaketarik munduko ekonomiarako. Izan ere, %5,7koa da aurrean eta %4,5koa, berriz, datorren urtean, hamarren bateko aldaketekin, beherantz edo gorantz, aurreko estimazioarekin alderatuta. Aurreikuspen taula horretan, **nabarmenezkoa da 2021ean eurogunerako egindako goranzko zuzenketa (puntu 1), Espainiari ere mesede egiten diona (0,9 puntu)**. Bere hausnarketan, erakunde honek eremu ekonomiko bakoitzaren hazkundera dagoen aldea adierazten du, txertoak eskuratzeko duten aukeraren eta abian jartzen diren sustapen fiskaleko politiken arabera. Horregatik uste du susperraldia azkarragoa izango dela ekonomia garatuetan garapen bidean dauden herrialdeetan baino.

Azkenik, merezi du hileko laburpen honetan aipatzea Espainiako kontu ekonomikoak argitaratzean sortu den zalaparta, **INEk berak aurretik egindako aurrerapena bi puntu baino pixka bat gehiago zuzendu baitu**. Analista batzuen ustez, horrek aurtengorako espero den hazkundera murriztera behartuko du; beste batzuen ustez, ordea, oraindik posible da urteko batez besteko zifra %6,2 ingurura iristea, hori baita kontu ekonomikoak argitaratu baino lehen argitaratutako aurreikuspenen batez bestekoa. Laster ikusiko dugu.